

## ALKATEAK BBK KUNA-REN (GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEN ETXEAREN) INAUGURAZIOAN PARTE HARTU DU, BILBO ZAHARREAN

- BBK Fundazioaren proiektu hau Ricardo Bastidaren “Sehaska Etxea” izeneko eraikinean dago. Orain arte, ongizatearen sorreran, aukera-berdintasunean, gizarte-integrazioan eta eskola aurreko heziketan erreferentea izan da.

- Bizkaiko hiriburuko garapen jasangarriko helburuen zentro honekin lotuta, Bilboko Udalak bi proiektu estrategiko lantzen ditu zeharlerro gisa: “Bilbao Balioen Hiria” eta Nazio Batuen 2030 Agenda. Bi proiektu horien bidez, balioak garapenaren motorra diren hiri baten eraikuntzan lanean ari dira.

(Bilbon, 2021eko urriaren 25ean).- **Juan Mari Aburto** Bilboko alkateak gaur goizean “**BBK KUNA**”ren inaugurazioan parte hartu du, hau da, garapen jasangarriaren helburuen etxea, BBK Fundazioak Bilbo Zaharrean sortutakoa. Ekitaldi instituzional honetan izan dira, modu berean, **Iñigo Urkullu** Lehendakaria; **Unai Rementeria** Bizkaiko Ahaldu Nagusia; **Ana Otadui** Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidentea; **Xabier Sagredo** BBKko presidentea, **Gorka Martinez** BBKko zuzendaria, **Nora Sarasola** BBKko Gizarte Ekintzako zuzendaria, eta **Eider Inunciaga** BBK Kunako zuzendaria, Bizkaiko beste pertsonaia garrantzitsu batzuekin batera.

“**BBK KUNA**” proiektu berria Ricardo Bastidaren “**Sehaska Etxea**” izeneko eraikinean dago, 1916an eraikia. Orain arte, ongizatearen sorreran, aukera-berdintasunean, gizarte-integrazioan eta eskola aurreko abangoardiako heziketan erreferentea izan da. Garapen jasangarriko helburuen estreinako etxe honek bost solairu dauzka, eta beraietatik “*proiektu berritzaileak sustatuko dira, zenbait gaitan soluzioak eskaintzeko: klima-aldaketa, iraultza teknologikoa, hirien eraldaketa eta migrazioa. Erronka horiei heldu beharra dago gizarte gisa hazten segitzeko, inor atzean utzi barik*”, azaldu dute antolatzaileek.

“Garapen jasangarriaren helburuen etxe” berri hau aitzindaria da nazioartean, eta gizarte-eraldaketari aplikatutako ikerkuntza, auzoaren parte-hartzea eta gizarteko eragile guztien (herritarren, unibertsitateen eta ikerkuntza-zentroen, administrazio publikoaren eta enpresa pribatuaren) elkarlana lantzen ditu.

Proiektu hau, alkateak bere hitzaldian onartu duenez, aukera paregabea da Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Atxuri auzoentzat. “*BBK KUNAn herritarrei ateak zabaltzeko eskatzen dizuet, hemen euren lekua aurkitu dezaten. Eta, modu berean, eskatzen dizuet BBK KUNAn Bilboko zona hau hobetzen eta sakontzen laguntzeko*”. Halaber, zentro berri honetaz, “garapen jasangarriaren helburuen etxeaz”, Juan Mari Aburtok esan du “*Bilbo bere mugatik kanpo ateratzen dituela. Muga fisikoak nahiz zientifikoak. Bilboko egoitza berri honetan, ideiak, proiektuak eta jarduerak Bilbon jaiotzen dira baina munduari irekita daude. Eta, alkate naizen aldetik, oso identifikatuta sentitzen naiz horrekin. Bilboko auzo batetik*

*mundura. Eta mundutik lortzen duguna, Bilbora eta bertako auzoetara ekarri dezagun. Horixe izan behar da BBK KUNA”.*

Bilboko Udalak bi proiektu estrategiko lantzen ditu zeharlerro gisa: “Bilbao Balioen Hiria” eta Nazio Batuen 2030 Agendako garapen jasangarriko helburuak. Bi proiektu horien bidez, balioak garapenaren, pertsonen eta hiriaren giza garapenaren motorra diren hiri baten eraikuntzan lanean ari gara. *“Balioak gure ekintza guztien oinarria baitira. Uste dugu balioen gutuna tresnarik onena dela Bizkaiko hiriburuan garapen jasangarriaren helburuak lortzeko”.* Alkateak horretaz esan du *“Bilbok erronka bere gain hartu duela. Orain, inoiz baino gehiago, benetako konpromisoa daukagu 2030 Agenda gure udal politiketan eta hiriko bizimoduan sartzeko”.* Bilboko Udalaren 2019-2023 Agintaldi Plana bat dator 2030 Agendarekin, eta jarduketa guztiek garapen jasangarriaren 17 helburuak eta beraien helburuak esleituta dauzkate. Gainera, Udalean sail arteko lantalde bat eratu da, 2030 Agenda barne prozesuetan eta udal proiektuetan txertatzeko.

## EL ALCALDE PARTICIPA EN LA INAUGURACIÓN DE “BBK KUNA”, LA CASA DE LOS ODS, OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE, SITUADA EN BILBAO LA VIEJA

- Este proyecto de la Fundación BBK se ubica en el edificio de Ricardo Bastida conocido como la “Casa Cuna” y que, hasta ahora, ha sido un referente en la generación de bienestar, igualdad de oportunidades, integración social y educación preescolar.
- Relacionado con este nuevo centro de los ODS en la capital vizcaina, en el Ayuntamiento bilbaino trabajan a nivel transversal con dos proyectos estratégicos “Bilbao Balioen Hiria- Ciudad de Valores” y la Agenda 2030 de Naciones Unidas, a través de los cuales se trabaja en la construcción de una ciudad donde los valores constituyen un motor de desarrollo.

(Bilbao, a 25 de octubre de 2021).- El Alcalde de Bilbao, **Juan Mari Aburto**, ha participado esta mañana en la inauguración de “**BBK KUNA**”, la casa de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) creada por la Fundación BBK, en el barrio de Bilbao La Vieja. El acto institucional ha contado, además, con la asistencia del Lehendakari, **Iñigo Urkullu**; el Diputado Foral de Bizkaia, **Unai Rementeria**; la Presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, **Ana Otadui**; el Presidente de BBK, **Xabier Sagredo**; el Director de BBK, **Gorka Martínez**; la Directora de la Obra Social de BBK, **Nora Sarasola**; y la Directora de BBK Kuna, **Eider Inunciaga**, entre otras personalidades de la sociedad vizcaina.

Este nuevo proyecto de “**BBK KUNA**” se sitúa en el edificio de Ricardo Bastida, de 1916, conocido como la “**Casa Cuna**” y que, hasta ahora, ha sido un referente en la generación de bienestar, igualdad de oportunidades, integración social y educación preescolar de vanguardia. La primera “**Casa de los ODS**” en la Villa se divide en cinco plantas desde donde “*promoverá proyectos innovadores que aporten soluciones al cambio climático, la revolución tecnológica, la transformación de las ciudades o la migración. Retos, en definitiva, que hay que abordar para poder seguir creciendo como sociedad sin dejar a ninguna persona atrás*”, han explicado desde la organización.

La recién estrenada “**Casa de los ODS**” es un centro pionero a nivel internacional, con investigación aplicada a la transformación social, participación del barrio y trabajo conjunto de todos los agentes de la sociedad: ciudadanía, universidades y centros de investigación, administración pública y empresa privada.

Un proyecto, que según ha admitido el Alcalde, durante su intervención, es una oportunidad para los barrios de Bilbao La Vieja, San Francisco y Atxuri, “*os pido que BBK KUNA abra sus puertas a las y los vecinos, que encuentren aquí su espacio también. Y, al mismo tiempo, os pido que desde BBK KUNA nos ayudéis a mejorar y profundizar en potenciar esta zona de Bilbao*”. Asimismo, sobre este nuevo centro, la “**Casa de los ODS**”, en la Villa, Juan Mari Aburto ha señalado que “*pone a Bilbao fuera de sus fronteras. Físicas y*

*científicas. Bilbao encuentra hoy una sede donde las ideas, los proyectos, las actividades nazcan en Bilbao pero estén abiertas al mundo. Algo que, como Alcalde, me hace sentirme muy identificado. Desde un barrio de Bilbao al mundo. Y lo que consigamos del mundo, que lo traigamos a Bilbao y sus barrios también. Eso debe ser BBK KUNA.”*

En el Ayuntamiento de Bilbao trabajan a nivel transversal con dos proyectos estratégicos **“Bilbao Balioen Hiria- Ciudad de Valores”** y los **Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) de la Agenda 2030 de Naciones Unidas**, a través de los cuales se trabaja en la construcción de una ciudad donde los valores constituyen un motor de desarrollo, el motor de tracción de las personas y también del desarrollo humano de la ciudad. *“Porque los valores son la base de todas nuestras actuaciones. Entendemos que la carta de valores es nuestra mejor herramienta para avanzar en la consecución de los Objetivos de Desarrollo Sostenible en la capital vizcaina”*. Al respecto el Alcalde ha explicado que *“Bilbao ha asumido el reto. Ahora más que nunca, nuestro compromiso es real por ir incorporando la Agenda 2030 en nuestras políticas municipales y en la vida de la ciudad”*. El Plan de Mandato 2019-2023 del Ayuntamiento de Bilbao está alineado con la Agenda 2030, y todas las actuaciones tienen asignados los 17 ODS y sus metas. Además, en el Consistorio se ha conformado un grupo de trabajo interáreas para la incorporación de la Agenda 2030 en los procesos internos y proyectos municipales.